Debo resaltar otra de las grandes ayudas tanto espirituales como materiales por parte de la Pastoral Penitenciaria. La labor abnegada de voluntarios y clérigos en favor de los presos es como una bocanada de aire fresco que oxigena nuestra mente y nos da vitalidad».

Enfermedad

«De repente, sin aviso previo, comienzo a sufrir una dolencia física que, en principio, no revestía importancia, pero con el paso de los meses y, tal vez por una atención hospitalaria deficiente, deriva en gangrena y más tarde en las amputaciones de pierna izquierda, primero, y luego, de la derecha. Es incalificable el sentir interno de todo lo pasado y presente: dolores terribles, sensaciones de impotencia al verte inválido. Por muy dura que sea la realidad que estoy viviendo, sin embargo, me resigno a la suerte y acepto este martirio como parte del pago por mi disloque mental. No me he quejado ni me quejaré jamás

por esta desdicha. No puedo hablar más de mis intervenciones quirúrgicas, sin agradecer el apoyo recibido por personas llenas de bondad que me han visitado repetidas veces cuando me encontraba convaleciente de las distintas amputaciones».

Cambio de centro penitenciario

«Mi integración ha sido rápida. Por supuesto, acudo a la eucaristía cada semana y también me relaciono con la gente de Pastoral Penitenciaria. En fin, he retomado mi amistad con Dios y ello me inspira energía para sobrellevar tantas vicisitudes sufridas».

Conclusión

«Pues bien, que nadie se crea libre de nada y, si no, como dijo Jesús: “el que esté libre de pecado, que tire la primera piedra”.

También les diría a tantos y tantos que se confiesan ateos que, a buen seguro, en situación extrema, como es la cárcel, su pensamiento cambiaría y se arrugarían implorando a Dios que les cambie el destino. ¡Humanicemos las cárceles!».

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



**Arantzazuko Andre Mariaren
irudi berria (1)**

HUTSUNE NABARMEN BAT

geratu da frontoian,
estali gabeko
frontisa betean;
eta hutsuneari
darion isiltasun
nabarmenago bat,
mendietarainoko
inguru guztian.

Ezin zitekeen
hutsune hori baino
ezer handiagorik
kabitu harrian.
Hutsune hori da
Jurgi eskultore
handiak utzi digun
irudi handiena,
eta nabarmenena.
Euskaraz egun esan
zitekeen hitzik
handiena jarri du
frontisean zutik.
Euskaraz egun esan
zitekeen hitzik
ozenena jaso du
mendiko frontoitik.

Arantzazuko Andre Mariaren irudi zaharra betikoa da, txikia, elizaren absidea-
ren erdi-erdian dagoena: elorri gainean eserita dago, irribarretsu, altzoan bere Jesus Haurra duela. Andre Mariaren irudi berria Oteizak egin da, elizaren fatxadaren goi-goian ipinia: zutik dago, erdi belauniko, bere Seme hila, lurrean luze, bere oinen babesean babesten duela.

Arantzazuko Andre Maria bat bera da, irudi bitan: biak harrizkoak. Eliza barrukoak

Arantzazuko sukaldea bete eta berotzen du –“amaren etxe nasaiko sukalde handi modura” irudikatzen du Gandiagak Arantzazuko eliza–, erromes eta otoizlariei abegi gozo eta irribarretsua egiteko.

Arantzazuko fatxadako Andre Mariaren irudia, berriz, euskal pilotaleku mendikoaren frontisaren goian ikusten du poetak, zutik jarria, euskaldun guztientzako mezu eta ahots –“euskaraz egun esan daitekeen hitzik ozenena”–, hormaren hutsune isilean.

«Bizitzari aurre egiteko bakoitzak bere bidea egin behar du»

AGUSTIN ERKIZIA



Argazkia: Ulrike Mai, #P#xahay

Ezagutzen ez duenarentzat: zer da Biziraun eta zergatik sortu zenuten?

Biziraun oso elkarte txikia eta sortu berria da. 2016aren bukaeran sortu zen. Komunikabideetan ateratzen joan gara eta ari gara gure lekutxoa egiten. Oso helburu konketuarekin sortu zen: zoritxarrez, suizidio bidez gertuko norbait galdu dutenentzako espazio bat aurkitzeko eta elkarri laguntzeko borondatearekin sortu zen. Gure helburua elkarri laguntzea da.

Zergatik sortu genuen? Garai hartan hemen ez zegoelako ezer ere. Gaur egun ere apenas. Bartzelonara joan ginen eta han Cecilia

Borrásen DSAS elkarte ikusi genuen (*Después del Suicidio Asociación de Supervivientes*). Cecilia da guretzat erreferentea izan den emakumea. Hemen ere zerbait egiten saiatu beharko ginatkeela pentsatu genuen.

Biziraunek helburu desberdinak ditu, baina nagusia da, zoritxarrez suizidioengatik norbait hil zaionari lekuren bat eskaintzea bere behar horri irtenbideren bat aurkitzeko. Elkar-laguntza taldeen bidez saiatzen gara zama astun hori pixka bat arintzen.

Horrenbestez, suizidioaren bidez norbait galdu duena 'superviviente'a da?

Agustín Erkizia es uno de los socios fundadores de *Biziraun* (www.biziraun.org), asociación de personas afectadas por el suicidio de un ser querido. Su hijo se suicidó en marzo de 2013, a los 17 años.

Superviviente es quien sale adelante después de la pérdida traumática de un ser querido. *Biziraun* quiere crear un espacio de confianza, comunicación y apoyo para los supervivientes, siendo conscientes de que cada uno ha de hacer su propio camino.

Hori ez da guk asmatutako hitza. Ni ez naiz 'super' ezertan kontsideratzen. Estatu batuetatik datorren termino bat da eta suizidioaren bidez hil den norbait galdu dugunoi horrekin identifikatzen gaituzte. Suizidioarekin identifikatuta 'superviviente' hitza entzuten baduzu, oso gertukoa den norbait suizidioaren bidez hil zaion pertsona da.

Ez da teknizismo bat, egoera latz eta gogor baten ondoren bere burua aurrera atera duen pertsona da *superviviente*a.

Erabiltzen den beste hitz bat 'sobreviviente' da, kasu honetan suizidio saiakera bat egin ondoren bizirik atera den pertsonari buruz ari gara.

Oraintxe aipatu duzu Biziraunen helburua *superviviente*en beharrak betetzeko espazioak sortzea dela. Zein behar dira horiek?

Bizitzari bere horretan heltzeko oinarrizko behar bat, bizitzari zentzu bat aurkitzeko. Horrelako zerbait gertatzen zaizunean, hurbileko norbait suizidioaren bidez hila dela alegia, zure bizitzako oinarrizko zutabeak desagertu egiten dira guztiz.

Horrelakoetan New Yorkeko dorre bikiakin gertatu zen antzeko zerbait gertatzen dela esan daiteke. Horrela irudikatzen da oinarrizko zutabeen desagertzea. Nik are eta gehiago esango nuke: dorre bikiak erori zirenean, han zoru bat gelditu zen. Hurbileko norbait suizidioaren bidez hiltzen denean, ingurukoak zorurik gabe gelditzen dira, espazioan grabitaterik gabe egongo bazina bezala, noraezean. Momentu horretara arte ikusi eta landu duzun guztia desagertu egiten delako, suntsitu. Bila diezaiogun helduleku bat hori guztia bizitzea tokatu zaigunoi.

Beste hainbat gauza ere egiten ditugu, eta horien berri gure webgunean eta facebooken ematen dugu, baina gure helburu nagusia helduleku horien bilaketari ekiteko espazioak sortzea da.

Egoera horretan bagaude, gertukoren bat galdu badugu, bere buruaz beste eginda, nola jarri zuekin harremanetan?

Guk ez dugu harremanetarako telefonorik jartzen pertsonal espezializaturik ez daukagulako.

2019ko ekainaren 3an Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia argitara eman zuen Eusko Jaurlaritzak.

Halako ardura eskatzen duen telefono bat Jaurlaritzaren prebentzio-estrategia horren baitan egon behar duela uste izan dugu hasieratik. Gure ustez halako egoera lazgarrian gelditu diren hainbat pertsonen erantzukizuna ezin daiteke irabazirik gabeko elkarteetan eskutan utzi.

Erakundeekin harremanetan jarri ginen, baina ez genuen erantzun egokirik jaso. Gaur egun esan dezakegu prebentzio plan horretan agertzen den telefonoak ez duela behar bezala funtzionatzen.

Nik kasu erreal batekin deitu nuen. Izan ere, lagun batek deitu zidan bere ezagun bat suizidio saiakerekin zegoela esanez, zer egin ez zekiela. Telefono horretara deitu genuen, eta ez zuten jakin nora jo behar genuen esaten. Gehiago, *biziraun* elkarteaz galdetu nien eta ez zekiten existitzen zenik ere.

Anbulatorioko lehen-arreta zerbitzura deitzeko esan ziguten, ea han zerbait esaten ziguten...

Guk badakigu zein gogorra den halako egoera larri batean dagoen pertsona bati lehen-arreta zerbitzura joan dadila esatea. Auskalo zer esaten dizuten han, segun nor tokatzen zaizun parean... Uf!!! oso gogorra. Eman zigutena ez da inondik inora erantzun egokia. Horregatik guk ez dugu telefonorik jartzen, agian egunen batean izan beharko dugu.

Behar izanez gero, guk Madrileko *La barandilla* elkarteko telefonoa ematen dugu. Egunero, astelehenetik igandera, goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara funtzionatzen duen telefono bat dute eta atzean pertsona aditu bat dago. Hau ere irabazi asmorik gabeko elkarte da, ez du diru publikorik jasotzen... Nik horra behin baino gehiagotan deitu dut, eta funtzionatzen duela esan dezaket.

“Maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkarte?” *Supervivientes* elkarte beraz, *biziraun*. Minarekin bizitzen, ikasi egiten da? Zerk laguntzen du?

Galdera ona. Norbanakoak aurkitu behar du bere bidea. Egia da protokolo guztietan bide bakarra balego modura hitz egiten dela, eta hala da, baina bide hori norberak egin behar du. Honekin zera esan nahi dut: momentu batean pertsona bati ondo etorri zaiona beste batengan desastre hutsa izan daiteke; eta justu kontrakoa ere bai: pertsona batengan funtzionatu ez duenak beste batentzat ona izan daiteke. Bakoitzak bere bidea egin behar du.

Horrelako egoera batetik atera daitekeen? Ez dakit. Baina bai, ikasi daiteke, baina oso gogorra da. Oso.

Norbaitek Everestera igo behar dugula esango baligu ezinezkoa dela erantzungo genioke. Baina posible da. Motxila soinean jarri eta entrenatu, entrenatu eta entrenatu. Gogorra da. Nik horrela irudikatzen dut *supervivientes* egoera.

Inoiz gerta ezin zitekeela pentsatzen genuena gertatu egin da, eta oinarrizko-oinarrizkoa den zerbait kendu digu. Burutik pasa ere ez zaizu egiten, baina gerta liteke.

Edonori gerta dakiok?

Noski. Ez dezagula pentsa suizidiorako prototipo konkretu bat dagoenik, eta inguruan horrelako inor ez dugunez edo eta horrelakoak ez garenez guri ez zaigula gertatuko. Ez. Edonori gerta dakiok. Kontuz honekin!

Izan ere datuak ikaragarriak dira. Estatuan egunean 10 pertsonak egiten du bere buruaz beste, Euskadin bi egunetik behin suizidioaz hildako bat...

Horiek dira ofizialki jasotako datuak, ofizialki ustez suizidio bidez hil diren pertsona kopurua. Baina bada oso deigarria den beste datu bat: 2000. urtean istripuz erorita hildakoak eta itota hildakoak 2600 pertsona izan ziren, 2018an 6200. Gorakada oso adierazgarria. Zeinek daki zenbat suizidio ote daden hildako horien artean... Gorakada ikaragarria da.

Arazo baten aurrean baldin bagaude, nahia-gu dut zertaz ari garen jakitea bere gordintasun osoarekin. Ikuspegi errealista horretatik abiatuta jakingo dut zer egin daitekeen eskura ditugun baliabideekin.



Hablar del suicidio no mata, lo que mata es no hablar de ello. Quizá el miedo que tenemos a hacerlo esconde demasiados prejuicios y muchos mitos en torno al suicidio.

Si no decimos a una persona que está en crisis, que tiene a su disposición más alternativas que el suicidio, como sociedad, le estamos diciendo que no tiene sitio y que no es aceptada.

Baina oraindik badago mamurik, hitz egin nahi eza... Gai delikatua da.

Zergatik suizidioari buruz hitz egiteko traba horiek?

Beldurra diogu heriotzari orokorrean, bizkarrara eman diogu. Orain dela gutxi arte gure zaharrak etxean hiltzen diren. Heriotza bizitzarekin lotzen zen beste atal baten modura ikusten zen. Orain heriotza industrializatu egin dugu, teknifikatu eta gure hildakoak tanatorioetara eramaten ditugu, hildakoak ikustea mingarria izanagatik begi bistan eduki ez ditzagun.

Gure kasuan, Joseba joan zitzaigunean, nire emaztea besarkatzen lehenak etorkin lagun batzuk izan ziren. Zergatik? Etorkinak heriotza oraindik ere gertutik bizi dutelako. Gure gizarte aurreratuan aldiz, heriotzari begiratu ere ez diogu egiten. Beldurra diogu, eta suizidioari zer esanik ez. Beldur horrekin suizidioari buruzko aurreiritzi gehiegi eta mito asko estaltzen ditugu.

Krisi-egoera batean dagoen pertsonari beste aukerak badituela ez badiogu esaten, gizarte honetan lekurik ez duela eta ez dela onartua esaten ari gatzaizkio; egin dezakeen gauzarik hobereana... Tristeia da.

2019an kotxe-istripuz hildako bakoitzeko, bere buruaz beste egin duten 2, genero indarkeriaz hildako bakoitzeko, suizidio bidez hil diren 75. Baina apenas dirurik eta baliabiderik ez da eskaintzen suizidioa prebenitzeko.

Datu bakarra emango dizut. Begira, puntu bidezko karnetaren sistema 2006ko uztailaren 1ean jarri zen indarrean, eta urte erdian estatistikek esaten dute kotxe-istripuz 1000 hildako gutxiago izan zirela. Beraz, suizidioa prebenitu ote daitekeen galdetzen denean erantzuna argia da. Guztiz ez, baina ahalegindu gaitzen. Eman diezaiogun aukera jendeari horrelako krisi-egoera batean laguntza eske nonbaitera joateko. Gaur egun ez dakigu nora joan.

Ni neu nahikoa kritikoa naiz Euskadi mailan egin denarekin. 2020rako jardunaldi batzuk antolatu ditugu, EHUko Udako Ikastaroen baitan, eta suizidioa prebenitzeko euskal planaren koordinatzailea gonbidatu dugu.

Uda ikastaroko saio honetan estrategia hau martxan jarri zenetik urte bat igarota izango denez, osasun sailaren balorazioa gertutik ezagutzeko aukera izango dugu. Primerako aukera beraz, estrategia landu dutenekin aurrez aurreko balorazio bat egiteko.

Jendeak zuengana jotzen du. Nola gerturatu suizidio bidez hurbileko bat hil zaion norbaiti?

Zer egin? Nola hurbildu? Lehendabizi errespetu handiarekin aholkurik ez eman. Ez dakigu bestea zein egoeratan dagoen, suizidio bidez hil zaion hori berreskuratzea ezinezkoa baita. Isilik egoteko prest egon behar dugu, entzuteko. Aukera eman besteari hitz egiteko. Zer moduz dagoen galdetzea askotan nahikoa da. Bestea hitz egiten has daiteke, edo negar egiten. Guzti horri aurre egiteko prest egon behar dugu.

Eta mesedez horrela sufritzen ari den pertsona batengana hurbiltzen bagara, gero ez joan ihesi. Hori gertatzen bada betirako joan zara, nahiz eta aurretik lagunik onena izan. Holako egoera bat pasa ondoren norbera emozionalki oso erradikala bihurtu daiteke, ez dago erdigunerik: niregana hurbildu nahi ez baduzu, fuera! Betirako.

Suizidio bidez hil diren pertsonen izenak ez dira aipatu ere egiten, beldurra ematen du! Baina *supervivienteok* gure hildakoei buruz hitz egiteko beharra dugu! Nahiz eta izena aipatzea mingarria izan.

Era horretan joan behar dugu: geure burua eskaini, isilik eta entzun. Ematen du gutxi dela, baina ikaragarria da: horrelako egoerei eusteko gaitasun aparta behar da.

Epeek ez dute balio. Galdutakoa inork ez digu berreskuratuko, eta bizitzen ikasten da, beste era batera: balioen eskala goitik behera aldatzen da, baita lagunak ere...

Egoera latz guztietatik ikasten dela diote. Hurbileko bat, seme bat, suizidio bidez hiltzen zaizunean ere bai?

Horrelakoak maiz entzuten dira, baina nik ez diot inori opa horrelakorik, ez eta nire arerio handienari ere. Horrelako egoeretatik ere ikasten da, egia da, baina beste erremediorik ez daukagulako. Hori egin ezean, heriotza dago.

Suizidio bidez hildakoengandik hurbil dauden horiek, estatistiken arabera, bere buruaz beste egiteko probabilitate handiak dituzte, bizitzari inongo logikarik aurkitzen ez dioteko. Baina ikasi egiten da, beste aukerarik ez dagoelako. Ikasketa-prozesu luze eta gogor horrek osasunarekin zerikusia duten arazo fisiko asko dakartza. Hori ere frogatuta dago.

Ikasi, ikasi egiten da, agian beste erremediorik ez dagoelako, zentzurik ez daukan egoera bati logika aurkitzea.

Logika kontua da?

Gure kasuan guztiz antinaturala izan da, hain gaztea joateak ez dauka bizitzaren logikarekin zerikusirik. Zerbaitetarako balio izan badu... Kontua ez da zergatik, zertarako baizik. Nietzschek esaldi bat ekarri, " "Bizitzeko motibo bat duenak, edozer jasan dezake". Gure kasuan, zertarako? Guk ulertu nahi izan dugu Joseba joan izanak bide hori hartzera behartu gaituela eta bide batez, baita ere, beste batzuei laguntzeko edo... Hori da hartu nahi izan dugun logika, jakinda oso gogorra dela.

Posible da zergatik bat identifikatzea?

Ez. Suizidioaren zergatiak jakingo bagenitu, soluzioa oso erraza litzateke. Baina ez da horrela. Suizidatzeko ez dago arrazoi bakarra; ez da adin kontua; ez dago profil konkretu bat; Malagan suizidio-tasa oso handia izanik, adibidez, eguzki-orduak ez dute zerikusirik... Kontua da ez dagoela faktore bakar bat suizidiorako. Faktore asko daude, eta nahiz eta momentu puntual batean eragina izan, ez dira erabakigarriak, beti atzean beste zerbait dagoelako.

Suizidioari buruz normaltasunez hitz egiteak zergatik lagun dezake?

Arrazoia oso sinplea da. Suizidatzen denak askotan ez daki zer nolako sarraskia sortzen duen bere inguruan. Horretaz ere hitz egin dezagun guztiok jakitun izan gaitzen. Bizitza oso konplexua da eta maila askotako arazoak dakartza. Beti dago alternatibaren bat. Suizidioak ez du soluziorik ematen, eta ematen badu, oso kaxkarra da eta ez du atzerabiderik. Bizitzak arazo asko ditu, larriak ez dira hain beste. Suizidioa oso arazo larria da, soluziorik gabekoa. Horren jakitun izan behar gara.

Suizidioari buruz hitz egin behar da, etxean, hezkuntza sisteman, lagunenean... Suizidioa gertatzen denean, akabo, ja ez du itzulbiderik, horregatik hitz egin behar da horri buruz.

Horren ondoan gelditzen garenok betirako gelditzen gara puskatuta. Puskatuta betirako, batzuek beste, suizidio bakoitzeko, sei pertsona gelditzen dira. Suizidio bakoitzeko 20 saiakerara daudela esaten da. Euskal Autonomia Erkidegoan 10 suizidio-saiakera egunero.

Suizidioari buruz ez hitz egiteak ez du ezer ere konpontzen. Gerta litekeen zerbait da, edonori gainera. Egin dezagun zerbait.

Iluntasun edo krisian erori den horri galdetu zer moduz dagoen, adibidez?

Egoera horretan dagoenari atea ireki eta galdetu: *Aizu, arazoekin zaude? Laguntza nahi duzu? Zer gertatzen zaizu?* Horrekin bakarrik bizitza bat salba daiteke.

Suizidatzeko erabakia hartuta zuen zenbait jende gure hitzaldietara etorri eta hitzaldi horietan entzundakoa entzun ondoren, hizlariari honakoa esan: eskerrak entzun zaitudan, nire buruaz beste egitera nindoan.

Datuak oso gordinak eta gogorrak dira. Zerbait egiten al da gizarte-mailan?

Ni oso kritikoa naiz. Erakundeek beste eremutan prebentzio-kanpainak eta kontzientziazio-egunak antolatzen dituzte, baina suizidioaren eremuan, ez da ezer egiten. Nazioarte maila oso esanguratsuek diren bi egun daude: irailaren 10a, suizidioaren prebentziorako nazioarteko eguna; eta azaroaren hirugarren larunbata, *supervivienteon* eguna. Bi data horietan ez da ezer egiten erakundeek aldetik.

Erakundeak patal dabilta suizidioarekiko duten jarreraren. Zer nolako esperientzia izan duzu Elizak duen jarrerarekin?

Gurea gertatu zenean, martxoan zazpi urte, Markinako apaizak esan zigun ez zekiela zer esan. Hori oso gogorra da, ze era normal batean hil denak mota guztietako laudorioak jasotzen ditu. Suizidio bidez hil den 17 urteko mutiko bati ezer ez. Hileta elizkizunean ere bere lagunetako bati bakarrik utzi zion hitz egiten, eta askok hitz egin nahi zuten... Oso gogorra.

Harrezkero ez naiz berriro Markinako elizan sartu.

Baina beste aldetik, Josebak etxe ondoan zegoen ikastetxe erlijioso batean ikasten zuen. Hil zenean ikastetxe horretako monjek sagarrondo bat jarri zuten bere izenean. Joseba urte hauetan beti presente izan dute, ez dute sekula ezkutatu. Sagarrondo haren lehendabiziko sagarrak guri ekarri zizkiguten. Oso ederra.

Askotan joaten gara Ziortzako monasteriora. Asko gustatzen zaigu. Ziortzako elizkizunetan hildakoak aipatzen direnean lehendabizi aipatzen diren bi pertsonak suizidatutakoak dira: Arkaitz eta Joseba. Beti aipatzen dituzte, gu joan edo ez. Ez dute aurreiritzirik. Pertsona bezala tratatzen dituzte. Oso eskertzekoa da hori. Josebaren izena entzuteko bakarrik inoiz Zarauztik haraino joan izan gara.

Elizak ere gai honetan bere trantsizioa egin behar du, eta gauzak aldatzen doaz. Azaroaren hirugarren larunbata, *supervivienteon* eguna. 2018an Donostian egin genuen ekitalditxo bat, alde zaharreko eliza batean. Bertako apaizak ez zigun inolako oztoporik jarri bere elizan ekitaldi zibila egiteko. Hirurogeita hamar bat pertsona batu ginen bertan, tartean moja batzuk zeuden. "Bai gure artean orain dela gutxi gertatu zaigu", esan zidaten.

Jainkoak izan al du eraginik, *superviviente* zaren aldetik, berreraikitze lan honetan?

Gauza askorik ez egia esan. Norberak bere bidea egiten du, eta nik introspektioari hel-

du diot, neure burua eta nire mugak hobeto ezagutzeari. Gauzak zerbaiterako gertatzen dira. Hor aurkitu diot zentzua bizitzari. Beste norbaitek beste bideren bat topatuko zuen, eta agian hor Jainkoa egongo da, baina nik nire ibilbidea kontatzen dut.

Tranzendentziarik badagoen edo ez? Agian bai. Itxaropen hori dut: noizbait nire Joseba besarkatu ahal izango dudala. Gertatuko den edo ez, ez dakit, baina horri heltzen diot.

Bukatzeke, zer esan nahi du Arantzazuk zuretzat?

Begira, Josebarena gertatu zenean Arantzazura joan ginen, bake bila. Ez ginen iritsi ordea, elurtuta zegoen eta.

Arantzazun ni neu bakean aurkitzen naiz. Isiltasuna. Hango parajeak... zoragarria da. Oso eroso sentitzen naiz Arantzazun.

Niri elkarrizketak mezu positiboarekin bukatzea gustatzen zait, horregatik jendeari suizidioak beti irtenbidea duela esango nioke. Suizidioa behin-behineko arazoei ematen zaien behin-betiko konponbidea dela diote. Hitz egin dezagun arazo horietaz. Bestetik zoritxarrez suizidioa gertatuz gero, ondoren gelditzen direnei mezu positibo bat: posible da bizitzari aurre egitea. Hori bai, bakoitzak bere bidea egin behar du. Bide luzea, gogorra eta amaigabea.

Eskerrik asko!



Argazkia: facebook.com/biziraun

Siempre hay alternativas al suicidio. Dicen que el suicidio es una solución definitiva a un problema provisional. Hablemos de esos problemas, que sí tienen solución.

Lo que mata es el silencio. Queremos poner voz a esta realidad silenciada. Hablemos con naturaleza sobre el suicidio.

10 de septiembre, día internacional del suicidio; tercer sábado de noviembre, día de los supervivientes.

Vivenciarnos como perdonados

Xabier Etxeberria

Damu zintzoa erruduntasun morala gainditzeko erabakigarria bada ere, jasotako barkamenak ematen du indar askatzailea. Ebanjeliotako bi pasartetan adierazten da nola uztartzen diren damu zintzoa eta jasotako barkamena: Fariseua eta emakume bekatari barkatua (Lk 7,36-50).

El arrepentimiento sincero y coherente es decisivo para superar la culpabilidad moral, pero encuentra su plenitud cuando se imbrica con el perdón recibido. Dos relatos evangélicos ofrecen pistas significativas sobre esta cuestión.

El relato de “la pecadora pública” (Lc 7,36-50)

El fariseo Simón invitó a Jesús a comer. Ya sentados en la mesa –todos varones-, se presentó una prostituta y, con gesto inaudito, “se puso detrás de Jesús, junto a sus pies, y llorando comenzó a bañar con sus lágrimas los pies de Jesús, y a enjuagárselos con los cabellos de la cabeza, mientras los besaba y se los unguía con el perfume”.

Simón, incómodo e indignado, pensó: “si fuera profeta sabría qué clase de mujer es la que lo está tocando, una pecadora”. Jesús, intuyendo su pensamiento, le preguntó: si a un prestamista uno le debe 500 denarios y otro 50, y, viéndolos insolventes, les perdona a ambos, ¿quién le amaré más? Simón reconoce que aquel a quien se le perdonó más. Entonces, Jesús, “volviéndose a la mujer”, aplica la miniparábola a la situación. Frente a los

fallos de Simón en su hospitalidad, resalta la intensa, cálida y humilde acogida de la mujer, para concluir: “te aseguro que si da tales muestras de amor es que se le han perdonado sus muchos pecados; en cambio, al que se le perdona poco mostrará poco amor”. Se dirige luego a la mujer, delante de todos: “Tus pecados quedan perdonados. Tu fe te ha salvado. Vete en paz”.

Amor de perdonada

Los expertos dicen que, además de las prostitutas de los burdeles en las ciudades –esclavas controladas por esclavos-, había prostitutas callejeras –como la del relato-, en general de las aldeas, casi siempre mujeres repudiadas, viudas empobrecidas o jóvenes violadas. Hoy diríamos: mujeres socialmente empujadas a la prostitución, por tanto, decididamente víctimas, por partida doble: por tener que ejercer la prostitución y por pasar a ser no solo marginadas, sino manchadas que manchan lo que tocan. La mujer del relato, de todos modos y en su contexto, incluso si era consciente de su opresión, se sentía pecadora. Supo de Jesús, supo que Jesús quebranta-

Emakume bekategoriaren kontakizunean, damu zintzoak (bere burua bekatarizat onartzen duen emakumearen negarra) eta barkatua sentitzeak bat egiten dute. Barkamenaren bidezko maitasun irekiak egiten du posible emakumearen maitasuneko harrera bero eta apala.

Fariseuaren kontakizunak buruaskitasunaren antzutasuna adierazten zaigu. Norberaren hutsen jabe eginez eta barkamena eskatuz, norbera barrutik hustu egiten da barkamenaren eskutik datorren maitasunari leku egiteko.

ba las leyes de la pureza, manchándose con ello, para acogerlas; quizá le había escuchado entre la gente en alguna ocasión y le había conmovido. Y, rompiendo todo prejuicio social, se le acercó del modo como lo hizo, culminando así su proceso interior.

En esta mujer se hacen una especie de unidad inescindible el arrepentimiento sentido y la conciencia de verse perdonada. Aunque el primero es muy intenso, Jesús testifica la segunda: es del sentirse perdonada de donde brota decididamente su amor, es ese sentirse perdonada lo que da a su arrepentimiento todo su potencial liberador de la culpa. No es perdonada porque ama y "mereciera" así el perdón (el perdón como tal es gratuito siempre), ama porque se abre a ser amada con el perdón ("tu fe te ha salvado"). Y se siente tan inmensamente perdonada-liberada que su amor agradecido es igualmente inmenso.

No es fácil la proyección secular de este relato, pues es muy decisiva en él la experiencia de la mujer de sentirse perdonada no por sus potenciales víctimas (desde este punto de vista es ella la víctima a la que debería dirigirse el arrepentimiento de sus victimadores) sino por Jesús, y perdonada de lo que ella experimenta como pecado ante Dios, lo cual nos sitúa en marcos religiosos. Pero no deja

de haber aspectos relevantes a nivel secular, entre los que destaco –junto al de que el perdón es gratuito– este: la liberación más plena de la culpabilidad en la persona, sea en ámbitos intersubjetivos o cívicos, se da cuando se logra esa imbricación entre arrepentimiento sentido y expresado "a su modo", y perdón recibido. Entonces tiene pleno alcance lo que dice Jesús a la mujer en la conclusión del relato: "vete en paz".

Nota sobre la parábola del fariseo y el recaudador (Lc 18,9-14)

Es una parábola en la que está implicado el perdón. Con ella, Jesús vuelve a ser provocador e interpelador, y a mostrar su predilección por los "malos" (recaudador frente a fariseo), y lo proclama ante todos, para sorpresa de todos. Situado en la perspectiva secular, solo quiero subrayar de la parábola algo que da luz sobre una afirmación de Jesús en el relato anterior: "al que se le perdona poco, mostrará poco amor". Al fariseo se le perdona poco –nada– porque considera que en él no hay nada que perdonar, nada de lo que arrepentirse; se percibe tan autosuficiente que solo le cabe el amor a sí mismo. El recaudador, en cambio, consciente de sus múltiples faltas para las que anhela el perdón, se vacía de sí mismo y abre así un gran hueco interior en el que acoger el amor que se le ofrezca.

Dialogar

Txetxu Ausín

Egungo gizarte pluralean dauden arazo eta erronkei aurre egiteko elkarrizketa eta eztabaida (deliberazioa) ezinbesteko tresnak dira. Deliberazioa balioetan oinarritzen den eztabaida jantzi eta eraldatzailea da, gatazketako iritzi kontrajarriak aldatzeko eta garatzeko baldintzak sortzen baititu. Adostasunera mugatzen ez den gatazken konponbide arrazionaletan —prozesu deliberatzaileetan, alegia— aldeen arteko etena lausotu daiteke, jarrerak hurbildu eta desadostasunaren zergatiak argitu.

Vivimos en sociedades plurales y complejas donde partimos de posiciones iniciales divergentes, de desacuerdos, de una diversidad de intereses, preferencias y doctrinas ideológicas, religiosas o culturales.

Será a través del diálogo y la deliberación, de la reflexión pública y la argumentación que caracterizan a la democracia, como podremos encontrar respuestas colectivas a los desafíos y problemas sociales.

La deliberación se refiere a una discusión que es informada, que se basa en valores y que es transformativa. Eso la diferencia de otras formas de intervención ciudadana como la consulta pública: Mientras que en las encues-

tas se obtienen opiniones individuales agregadas sobre algún asunto, en la deliberación se crean las condiciones para que esas opiniones cambien y evolucionen.

Defiendo que a través del diálogo, de argumentos, razones y narraciones, es posible transformar públicamente las diferencias para llegar a una resolución racional de los conflictos, a un compromiso que no significa necesariamente consenso —el disenso es un elemento crucial de la democracia. Sin embargo, aunque se mantenga un desacuerdo con una decisión, los ciudadanos pueden considerarla más aceptable y justa cuando ha estado sujeta a una discusión abierta e inclusiva que ha tomado en consideración las perspectivas enfrentadas.

Al dialogar y deliberar sobre alguna controversia se puede reconocer (por parte de los contendientes o de su comunidad de referencia) que se ha acumulado suficiente peso a favor de una de las posiciones; o bien pueden aparecer posiciones modificadas, gracias a la controversia; o bien simplemente se pue-

“Eztabaida eraldatzailea eta erakitzailea izan dadin aldeek elkar aintzat hartu behar dute, elkar errespetatu, desberdintasuna eta desadostasuna onartu eta zintzo jokatu.

“Espazio publikoko eztabaidarako ezinbesteko baldintza da informazioaren irisgarritasuna. Demokraziaren betebeharrak etikoetako bat, beraz, informazio egitiaz denon eskura jartzea da

de aclarar recíprocamente la naturaleza de las divergencias en juego.

Por lo anterior, se dice que la deliberación no es sólo un proceso para escoger racionalmente entre alternativas dadas sino también un procedimiento de creación de nuevas alternativas, lo que otorgaría a este procedimiento de decisión virtudes epistémicas y hasta morales.

Pero el diálogo y la deliberación exigen una serie de virtudes:

- reconocimiento recíproco: una cierta magnanimidad frente a los discrepantes sobre la idea de que se puede aprender de los otros, sin sospechar sistemáticamente de ellos;
- respeto mutuo (interacción constructiva);
- la inclusión de perspectivas y enfoques diversos sobre los asuntos en cuestión;
- la tolerancia de los distintos puntos de vista, junto con la aceptación tanto del acuerdo como del desacuerdo (la posibilidad del disenso);

- la integridad frente a una visión meramente estratégica del diálogo; esto es, tomar en serio la veracidad, como mínimo, en nuestros intercambios argumentativos.


Y exige también el acceso a la información relevante para las cuestiones a tratar. Disponer de información suficiente y confiable es un elemento de “empoderamiento” ciudadano y una condición discursiva necesaria del espacio público para la formación de la opinión y la voluntad y, por tanto, una suerte de imperativo ético de la democracia. Así se reconoce en muchísimas legislaciones nacionales y en el sistema internacional de derechos humanos.

Este derecho a recibir información veraz no sólo entraña la obligación negativa de no impedir la difusión de contenidos y noticias, esto es, la prohibición de la censura y la libertad de contar. Asimismo, implica el deber positivo de informar (verazmente, con diligencia) sobre los aspectos relevantes de la discusión pública, como comentamos en un artículo anterior. Y para ello los poderes públicos han de comprometerse con este acceso a la información, indispensable para la deliberación pública, favoreciendo el conocimiento y la difusión de las diversas propuestas (argumentos, narraciones) acerca de un determinado asunto, para ampliar los términos del diálogo.

Dialogar y argumentar para comprender y convivir.

Campaña anual TAU 2020

¿Te implicas?



Marta Mañeru, TAU Fundazioa

Como todos los años por estas fechas, desde TAUfundazioa ponemos en marcha una Campaña Solidaria con la intención de contribuir a crear una ciudadanía responsable y solidaria que sea consciente de las problemáticas de este mundo globalizado en el que vivimos y que se comprometa en intentar transformar esta realidad. Éste año el lema de la Campaña es ***Muévete contra la desigualdad: contra el desarrollo que desarrolla desigualdad.***

La Campaña del 2020 continúa con el trabajo de descripción y análisis crítico de los Objetivos de Desarrollo Sostenible ODS 2015-2030

que ya iniciamos en la Campaña del 2018, y para este año planteamos el análisis del ODS vinculado a la problemática de la Desigualdad.

La razón de elegir esta problemática es clara, con la globalización neoliberal, que se ha extendido por todo el planeta, no sólo se han incrementado los flujos de bienes e información, sino también se han acelerado los procesos de acumulación de dinero y capital. De acuerdo a uno de los informes de OXFAM INTERMON, *premiar el trabajo y no la riqueza (2018)*, una reducida minoría de alrededor del 1% de la población mundial acapara la mitad de la riqueza del planeta y en los últimos

Aurten ere Tau fundazioa elkarkidetza bultzatu nahi duen ekimena jarri du abian. Helburua, lagun hurkoarekiko solidario eta arduratsudiren pertsonak sustatzea da. Bizi garen mundu globalizatuko arazoen berri duen herritarra, errealitate hori eraldatzera konprometituko den herritarra izango dela uste dugu. Helburu horiek aurrera eramateko aurten berdintasun ezaren gaia landuko dugu: munduko biztanleen %1 munduko aberastasunaren erdiaren jabe da. Pobrezia eta desorekaren arrakala handitzeak dakarren berdintasun eza, lau ikuspuntu-tik aztertzea proposatzen du Tau fundazioak: (1) berdintasun ezaren kontzeptua eta zergatiak aztertzea; (2) berdintasun ezari aurre egiteko hainbat proposamen lantzea; berdintasun ezaren bi kasu zehatz aztertzea (3) genero desberdintasuna eta (4) berdintasun ezak ekarri duen joan-etorri migratorioa.

años esta tendencia sólo se ha incrementado, acrecentando la inequidad y la abrumadora y abismal brecha entre los niveles de desarrollo y las condiciones de vida entre un reducido grupo de hiper billonarios y centenas de millones de personas hundidas en la miseria y que apenas sobreviven. La actual desigualdad es una masiva y rapaz maquinaria de generación de pobreza e injusticia.

